



## **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure enpresaren beste oinarrietako bat bezeroekin izango dugun harremana izango da. Hau ezinbestekoa da jendeak gure produktua erosteko, izan ere, bezeroei konfidantza transmititzea oso garrantzitsua da, gero eta jende gehiagok erosteko gure alkatxofa multifuntzionala.

Horretarako, gure enpresak webgune bat sortuko du, bertan enpresako langile, langiro, balio etiko, helburu, etab, azalduko ditugu. Era horretan bezeroek gure inguruan gehiago ezagutu ahal izango dute. Gainera, guk, enpresaren sortzaileok, ere atal bat izango dugu webgunean eta bertan prozesu hau nola bizi izan dugun, zein zailtasun izan ditugun eta etorkizunari begira ditugun helburuei buruz idatziko dugu, bezeroek enpresaren funtzionamendua barrutik ulertu ahal izateko. Horretaz gain, bideo eta argazki batzuk ere txertatuko ditugu webgunean, gure produktua erosten dutenek produkzio eta ideiaeren garapenaren prozesua ikusi ahal izateko.

Bigarrenik, webgunearen berri emateko, sare sozialak erabiliko ditugu, hau da, sortzaileok eta lagundu nahi diguten ezagunek, Instagram, Facebook, Snapchat... bidez gure proiektuaren inguruko argazki edo bideoen bat igoko dugu, baita webgunearen linka txertatu ere. Horrekin, produktuan interesatuta daudenak webguneari begirada bat botatzea lortuko dugu.

Bestalde, bezeroek gure produktuak erosterako momentuan ahalik eta zalantza gutxien izateko, Amazonen ere webgunean izango dugun informazioa txertatuko dugu. Gainera Roca dendako langileek gure alkatxofa multifuntzionala ondo ezagutu beharko dute, dendara datozenei ahalik eta azalpen zehatzena eman eta beraien zalantzak argitu ahal izateko.

Hori gutxi izango ez balitz bezala, gure produktua jendeari aurkezteko helburuarekin inagurazio festa bat egingo dugu Roca dendan, horrela bezeroekin harreman estuagoa lortu ahal izango dugu, konfidantza eta segurtasuna transmitituz,

Azkenik, produktuan interesatuta daudenek nola funtzionatzen duten ikusi ahal izateko, Roca dendan bertan langileek nola funtzionatzen duen erakutsiko die, dendako dutxa batean probatuko dutelako. Hala ere, erosi ondoren alkatxofak arazoren bat izango balu sai hilabetetako garantia izango du produktuak, era horretan dendara joan eta alkatxofa aldatzeko aukera egongo da.